Sartu gure Webean!: www.stee-eilas.org

INFORRIA 2011-12 11

STEE-EILASeko informazio orria –Araututako Irakaskuntza Pribatua Urtarrilak 12

# HAUR-ESKOLAKO 2011-12 IKASTURTERAKO DIRU-LAGUNTZAK

## HEZKUNTZA SAILAREN IRUZURRA ETA BALIZKO ONDORIO LABORALAK

Joan den abenduaren 28an argitaratu zen EHAAn Haur-Eskola pribatuentzako 2011-12 ikasturterako diru-laguntzak ematen eta ukatzen dituen 2011ko azaroaren 30eko Ebazpena. Diru-laguntza horien deialdia 2011ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez egin zen eta bertan itundutako ikastetxean dauden 0-3 zikloko gelez gain Haur-Eskola pribatu guztiak ere aurkeztu dira. Ebazpena garrantzitsua da, bertan zehazten direlako ikasturte honetan gela hauek izango duten finantzabide nagusia. Falta dena ikastetxeek osatu beharko dute, batez ere gurasoen kuoten bidez.

Ebazpenean, diru-laguntzak emateko modulua aldatu ez bada ere (4.173 €, 0-1 urteko geletarako; 2.568 €, 1-2 urteko geletarako eta 1.854 € 2-3 urteko geletarako) **Hezkuntza Sailak berriro murriztu du diru-laguntza hauetarako bideratzen duen diru kopurua.** Jaitsiera hau **%3,4koa da**, aurten 29.061.666 € erabiliko direlako, iaz 30.061.666 ziren bitartean.

Eta jaitsiera hau iruzur eginez gauzatuko dute. Gela kopurua berdintsua denez iazko ikasturtearekin aldenduta eta diru gutxiago dagoenez banatzeko, dagokiena baino diru gutxiago jaso dute ikastetxeek, hain zuzen ere **%3,4 gutxiago.** Iruzur honen bidez Hezkuntza Sailak itxurak gordetzen ditu moduluak aldatu ez dituelako (iaz %4,8ko jaitsiera izan zuten modulu horiek) baina azpitik murrizketa berriak ezartzen ditu. Bi urteetan %12ko jaitsiera izan da Haur Hezkuntzako lehen zikloaren finantziazioan.

**STEE-EILASek salatzen du murrizketa berri hau, zerbitzu publikoei egindako beste eraso bat delako eta prest gaude Hezkuntza Sailaren jarreraren kontra mobilizazio berriak egiteko. Hezkuntzari baliabideak kentzearekin ez gaude ados eta argi eta garbi adierazi diogu Hezkuntza Sailari.**

Baina kezkatuta gaude egoera berri honek ekar ditzakeen ondorio laboralekin, *Kristau Eskola* patronalak orain arte bezala jokatzen jarraitzen badu, murrizketak langileen bizkarren gainean jarriz. Izan ere 2011. urtean %4,8ko jaitsiera ezarri zien lansarietan irakasleei, goi mailako teknikariei eta laguntzaileei. Murriztutako portzentaia eta urteko kopurua neurriz kanpokoak izan ziren, gainontzeko mailetan aplikatzen ari diren murrizketekin konparatuta. Horrela aipaturiko hiru kategorikoei %4,6-4,8 bitarteko murrizketa ezarri zitzaien, irakasleei %2,4 (HH eta LHn) edo %3,5 (BH) ezartzen zitzaien bitartean. Kolektibo honek 2010. urteko urtarriletik hona izan duen eroste ahalmenaren galera %10,4 eta 11,5en bitartean dago. Honi, soldaten izozketaren ondorioz 2012 urteko KPIaren galera gehitu behar zaio. Ez al da nahikoa?

**STEE-EILASek ez du onartuko murrizketa berri hori langileengan zamatzea eta beharrezko neurriak hartuko ditu horren kontra. Langileon lan-baldintzekin ez dituzte ordaindu behar erakunde publikoaren jarrera zitala.**

Beraz, galdera batzuk baditugu *Kristau Eskolari* egiteko:

- *Aurten ere, modu berean jokatzeko asmoa al du?*
- *Finantziazioan duten %3,4ko murrizketa honek langileen soldaten jaitsiera erakarriko du?*
- *Kuota berdinekin jarraituko dute, askotan irakaskuntza publikokoa baino merkeagoak?*

Agian interesatuko zaizue jakitea zenbat diru jaso duen zure ikastetxeak. Link honetan ebazpen osoa aurkituko duzue:

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20111228&s=2011245

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 🖷 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 🖷 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 🖷 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja) 31001 Iruñea ☎ 948 21 23 55 🖷 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org

Sartu gure Webean!: www.stee-eilas.org

INFORRIA 2011-12 11

STEE-EILASeko informazio orria –Arautûtako Irakaskuntza Pribatua Urtarrilak 12

# AYUDAS A ESCUELAS INFANTILES PARA EL CURSO 2011-12

## FRAUDE DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Y POSIBLES CONSECUENCIAS LABORALES

El pasado 28 de diciembre se publicó en el BOPV la resolución de 30 de noviembre de 2011 en la que se otorgan y deniegan subvenciones para el curso 2011-12 a Escuelas Infantiles privadas, convocadas por la Orden de 27 de Julio de 2011. En dicha Resolución, además de las aulas de 0-3 años de los centros concertadas se encuentran todas las Escuelas Infantiles privadas. Dicha Resolución es importante porque en ella se concreta la principal vía de financiación que tendrán estas aulas en este curso. El resto lo tendrán que aportar los centros por medio de las cuotas de las familias.

A pesar de que en la Resolución no se ha modificado el módulo de subvención ( 4.173 €, para las aulas de 0-1 año, 2.568€ para las de 1-2 años y 1.854€ para las de 2-3 años), el Departamento de Educación ha recortado, nuevamente, la partida destinada a estas ayudas. El recorte es del 3,4%, ya que la partida correspondiente a este año es de 29.061.666 €, mientras que la del año pasado fue de 30.061.666€.

Y este recorte lo ha materializado cometiendo fraude. El nº de aulas es muy similar al del pasado curso y como la partida total es inferior a la del año anterior, los centros han recibido menos dinero que el que les correspondería según el módulo de subvención, concretamente un 3,4% menos. Así, el Departamento guarda las apariencias porque no modifica los módulos de subvención ( el año pasado disminuyeron un 4,8%), pero con esta artimaña impone nuevos recortes. En los dos últimos años, el recorte en la financiación del primer ciclo de Infantil ha sido del 12%.

STEE-EILAS denuncia este recorte porque supone otro ataque a los servicios públicos y estamos dispuestos a movilizarnos, nuevamente, contra el Departamento de Educación. No estamos de acuerdo con reducir los recursos para Educación y así se lo hemos manifestado a la Administración.

Además, estamos preocupados por las consecuencias laborales que puede crear esta situación si *Kristau Eskola* sigue actuando como hasta ahora, es decir, repercutiendo los recortes en el personal. En 2011 aplicó un recorte salarial del 4,8 % a maestras, técnicos y asistentes. Teniendo en cuenta los recortes que aplicaron en el resto de los niveles, este porcentaje y la cantidad anual que supone fueron desproporcionados. De esta manera, mientras al personal del 0-3 le recortaron el sueldo entre el 4,6 y el 4,8 %, al profesorado del segundo ciclo de infantil y primaria se les recortó un 2,4% y al de secundaria un 3,5%. La pérdida de poder adquisitivo que ha tenido este colectivo desde septiembre de 2010 hasta ahora es de entre un 10,4 y un 11,5 %. A ese porcentaje, a consecuencia de la congelación salarial para este año, hay que sumarle la pérdida del IPC del 2012. ¿No es suficiente?

STEE-EILAS no aceptará que este nuevo recorte del Departamento recaiga en los trabajadores y trabajadoras y tomará las medidas oportunas contra ello. Las condiciones laborales del personal no deben asumir las consecuencias de esta postura inaceptable de la Administración.

Por todo esto, tenemos algunas preguntas para Kristau Eskola:

- *¿Tiene la intención de hacer lo mismo este año?*
- *¿Este recorte del 3,4 % en la financiación supondrá un rebaje del sueldo del personal ?*
- *¿Van a continuar con las mismas cuotas, en muchos casos más baratas que en la enseñanza pública?*

Si os interesa saber cuanto dinero ha recibido vuestro centro, en este link encontraréis la resolución completa

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20111228&s=2011245

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ARABA:** Eulogio Serdan, 5 | 01012 Gasteiz | ☎ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| **BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbao | ☎ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| **GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) | 20015 Donostia | ☎ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| **NAFARROA:** Descalzos, 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☎ 948 21 23 55 | 🖷 948 22 97 90 | nafarroa@stee-eilas.org |